

JOAQUIN MAYA UDALEKO MUSIKA ESKOLAK EMATEN DITUEN IKASKETETAN IZENA EMAN ETA PARTE HARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

7. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. saileko 2. azpisailean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Sortzapena

2. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra ikasketetarako izena ematean sortzen da, eta haietan parte hartu behar dutenek ordaindu behar dute, salbu ikaspostua galtzen badute ezarritako epean ez ordaintzeagatik.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

3. artikulua.- Arau orokor gisara, Musika Eskolako ikasketa-planari jarraitzen dioten ikasleek matrikularen prezio osoa ordainduko dute matrikula egiten dutenean. Salbuespenez, eta aurrez interesdunak eskaera arrazoitua aurkezturik, bi kuotatan zatikaturik ordaintzea baimendu daiteke. Ordainketa zatikatua egiteko bigarren epea urtarrilaren 15etik 31ra bitarte izanen da, luzatzeko aukerarik gabe.

Urtariletik aurrera eskolan onartutako ikasleek, ikastaro monografikoetan matrikulatu direnek eta Eskolako taldeetan parte hartzen duten kanpoko ikasleek ordainketa bakar batean ordainduko dute matrikularen prezioa, hura egiten duten unean.

Matrikularen prezio publikoa banku bidezko helbideratzeaz ordain daiteke.

Helbideratzearen balioa epemugarik gabea izanen da, non eta interesdunak balio gabetzen ez duen, salbu eta kreditu-entitateak atzera egiten badu edo Udal Administrazioak, justifikatutako arrazoiak direla medio, balio gabetzat jotzen badu.

Ikaspostua galduko da, baldin eta matrikula-ordainagiriak ordaintzeko epea amaituta, matrikulatu denak ez badu prezio publikoa ordaindu.

4. artikulua.- Zenbatekoa Udalak berak ikastaroa bertan behera uzten badu baino ez da itzuliko, edo ikaspostuari irailaren 30a baino lehen uko egiten bazaio. Epe hori gaindituta, behin ikasturtea hasia dela Musika Eskolan baja hartzeak, dela ofizioz dela interesdunak eskaturik, ez du salbuetsiko matrikularen bigarren epea ordaintzeko betebeharrak, baldin eta hura Arau honen 3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eskatu eta baimendu bazen.

Behin ikasturtea hasi eta matrikula ohiko epetik at libre gelditu diren ikaspostuetan egiten duten ikasleek 15 egun naturaleko epea izanen dute postuari uko egiteko, ordaindutakoa bueltan jasotzeko eskubidea edukita.

Ikaspostuari uko eginez gero, ikasleei ez zaie itzuliko administrazio- eta kudeaketa-gastuak direla-eta urte bakoitzean ezartzen den zenbatekoa.

5. artikulua.- 1) Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

2) Ikasleak Eskolan behin ikasturtea abiatuta hasiz gero, ikasturtea osatzeko zenbat hilabete falta diren eta horren proportzioan ordainduko dute tarifa, betiere izena zein hilabetetan eman eta hori barne hartuta.

3) Matrikula bi zatitan ordaintzen ahalko da, 3. artikuluan ezarritako bi epeetan.

Mugaeguna geroan duen ordainagiri baten kobrantzak ez du lehenagokoak ordaindu direla esan nahi, eta ez du zorpekoak direnak eskuratzeko Udalak duen eskubidea iraungitzen ere.

6. artikulua.- Arau honen eranskinaren III. epigrafean jasotako murriztapenen onuradun izan nahi duten eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

a) Murriztapena familia ugaria izateagatik jasotzeko, familia ugariko titulua, betiere, familia ugariei buruzko 20/2003 Foru Legean –zeina maiatzaren 18ko 6/2005 Foru Legeak aldatu baitzuen– ezarritako definizioarekin bat. Familia gurasobakarrei murriztapena aplikatzeko, otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak ezarritako definizio eta arautzearekin bat, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeko, familia gurasobakarreko titulua.

b) Murriztapena familiaren diru-sarrerak direla medio jasotzeko, familiako kideek urtean jasotako diru-sarrera gordin guztien aitorten justifikatua eta PFEZ egiteko betebeharra duten kideen zerga horren gaineko aitortpena edo likidazioa, eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona.

c) Murriztapena desgaitasuna dela medio jasotzeko, agiri ofizial bat, non jasoko baita eskatzaileak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela, edo ezintasun iraunkorra zein elbarritasuna dela bide administrazio publikoen diru-prestazioak jasotzearen gaineko egiaztagiria.

d) Murriztapena terrorismo-ekintzen biktimak izateagatik jasotzeko, biktimaren izaera aitortzen duen administrazio-ebazpena edo epaia, eta biktimak batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.

e) Murriztapena genero-indarkeriaren biktima izateagatik jasotzeko, babesteko agindua edo zigor-epaia, etxeko indarkeriatzat jotako ekintzak direla medio, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.

f) Murriztapena familiek beren baitan beste pertsona batzuk hartzeagatik jasotzeko, familia-harrera formalizatzen duen agiria edo hura erabaki duen administrazio-ebazpena edo epaia.

7. artikulua.- Tarifa-eranskinen III.2 epigrafean xedatutako murriztapenak zehazteko, honako kontzeptu hauek joko dira oinarri:

a) Familia-unitatea: Prezio publikoa kalkulatzeko, PFEZren gaineko indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat.

b) Errenta: PFEZren gaineko aitortpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitortpena edo likidazioa hartu, eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona, eta haren zerga-oinarriaren alde orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak familian mendekotasun egoeran bizi diren pertsonak zaintzeko emandako laguntzak. Erabiltzaileek PFEZren gaineko aitortpena egin behar ez izatera, datu fiskaletan jasotako diru-sarrerara gordin eguneratuenak hartuko dira kontuan.

c) Errenta garbia kalkulatzeko, aurreko puntuan zehaztutako errentaren eta gastu kengarrien diferentzia aterako da.

d) Gastu kengarriak. Honako hauek:

1. Ohiko etxebizitzako gastuak (muga: 400 €):

- Ohiko etxebizitzaren, apartamentu babestu publiko baten edo antzeko beste zerbaiten alokairua.

- Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren amortizazioa.

- Ohiko etxebizitza egokitzeko edo birgaitzeko lanek sortutako gastuak.

2. Langileak kontratatutako gastuak gizarte- eta osasun-egoera dela medio halakorik behar duten pertsonak beren etxeetan jarraitu dezaten arreta pertsonala jasotzen, betiere hori guztia frogatzeko modukoa izanda, dela mendekotasuna aitortzeko ebazpen baten bidez, dela Udaleko gizarte-zerbitzuek egindako txosten baten bitartez (muga: 700 €).

3. Eguneko zentroetako egonaldi-gastuak (muga: 400 €) edo egoitza geriatrikoetako egonaldi-gastuak (muga: 1.000 €).

8. artikulua.- Tarifa-eranskinaren III.2 epigrafeko murriztapenak aplikatzeko, ofizioz egiaztatuko dira eskatzaileen datu fiskalak, betiere interesdunek aurrez baimena emanda. Datu horiek jasota izan ezean, hileko *per capita* errenta garbia zenbatzeko gastu kengarrien gaineko informazioa emanen zaie erabiltzaileei, justifika ditzaten.

9. artikulua.- Murriztapen bat baino gehiago jasotzeko eskubiderik edukiz gero, ezin izanen dira metatu III. epigrafean ezarritako murriztapenak. Salbuespen gisara, familia ugaria edo gurasobakarrekoa izateagatik eta familiaren diru-sarrerak direla medio jaso beharreko murriztapenak metatzen ahalko dira, gehienez ere murriztapenaren % 100era bitarte metatu ere.

10. artikulua.- Aurreko ikasturtean irakasgairen batean ohorezko matrikula lortua zutenek eskubidea izanen dute ikasturte berriko irakasgai bereko matrikula doan egiteko. Irakasgai hori izan ezean, beste batean erabil dezakete doan matrikulatzeko eskubidea.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- IKASKETA ARRUNTAK	
- Ikasturte bakoitzeko matrikula (40 euro jotzen duten administrazio- eta kudeaketa-gastuak barne)	50,45 euro
- Irakasgai bakoitzeko	84,15 euro

II. EPIGRAFEA.- IKASTARO MONOGRAFIKOAK	
- Ikastaroan izena ematea (ikastorduko tarifa)	3,40 euro
- Koru- edo instrumentu-taldeetan izena ematea	84,15 euro

III. EPIGRAFEA.- MURRIZTAPENAK	
III.1.- Familia moten arabera:	
- Kategoría orokorreko familia ugariak eta familia gurasobakarrak	% 50
- Kategoría bereziko familia ugariak	% 100
III.2.- Familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio. Honako murriztapen hauek aplikatuko dira:	
Familia-unitatearen diru-sarrerak Errenta garbia	Murriztapen- ehunekoa
Gizarteratze Errentaren ≤ % 100	% 90
Gizarteratze Errentaren ≤ % 200	% 50
(GE: Gizarteratze Errenta edo hori ordeztu dezakeen adinako laguntza bermatua)	
Murriztapen honen onuradun izaten ahalko dira diru-sarrerarik ez duten pertsonak edo familiak, betiere haien diru- eskasiako egoera berezia Udaleko gizarte-zerbitzuek berretsi behar dutelarik, egiaztatzeko beste modurik ez badute.	

III.3.- Desgaitasuna dela medio:	
- Legez aitortuta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten ikasleak	% 50
III.4.- Terrorismo-ekintzen biktima izateagatik:	
- Terrorismoaren biktima-izaera epaiaren edo administrazio-ebazpenaren bitartez aitortua duten pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikotekide egonkorak, betiere ikasleak eskatzen zaion gutxieneko ordu-kopurua betetzen badu	% 100
Eskolak eskatzen duen gutxieneko ordu-kopurua bete ezean, murriztapenak % 50 joko du, eta ikasleak matrikularen % 50 ordaindu beharko du.	
III.5.- Genero-indarkeriaren biktima izateagatik:	
- Etxearen esparruan genero-indarkeria fisikoaren edo psikikoaren biktima diren pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontidea edo bikotekide egonkorak, horiek epaiak delituaren erantzule kriminalak jo ez baditu eta, betiere, ikasleak eskatzen zaion gutxieneko ordu-kopurua betetzen badu	% 100
Eskolak eskatzen duen gutxieneko ordu-kopurua bete ezean, murriztapenak % 50 joko du, eta ikasleak matrikularen % 50 ordaindu beharko du.	
III.6.- Familia-harrera dela medio:	
- Bereak ez diren familiek hartuak izan diren pertsonak, ebazpen judizial zein erabaki baten edo Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren edo pertsona hori babesteko ardura duen entitate publikoaren oniritziaren bitartez hartuak izan badira	% 50